

7/2017 AKTA
NAFARROAKO UDALERRIEN ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
URRIAREN 10ean EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

PRESIDENTEA:

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea*

1. PRESIDENTEORDEA:

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruénigoko alkatea*

BATZORDEKIDEAK:

Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea*
Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko burua*
Nieves Recalde Zaratiegui and., *Etxagueko burua*
Ur Algeró Chivite jn., *Aresoko alkatea*
Unai Lako Goñi jn., *Agoizko alkatea*
Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea*
Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea*
Arturo Goldaracena Asa jn., *Tafallako alkatea*
Karmele Marañón Chasco and., *Arbizuko alkatea*
Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesibarko alkatea*
Yolanda González García and., *Vianako alkatea*
Patricia Perales and., *Iruñeko zinegotzia*
Ángel Obanos Galar jn., *Artikako burua*
David Álvarez Yanguas jn., *Castejónko alkatea*
Koldo Leoz Garciandia jn., *Lizarrako alkatea*

Ezin etorria adierazi dute:

Jesús M^a Rodríguez Gómez jn., *Ribaforadako alkatea*
María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea*
Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea*

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hamazazpiko urriaren hamarrean, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERREDA

- 1.- Aurreko bilkuraren akta onestea.**
- 2.- Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.**
- 3.- Garapenerako Lankidetzaren arloko jarduketak 2017-2018an.**
- 4.- Presidentearen informazioa.**
- 5.- Galde-eskeak.**

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren akta onestea.

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldeztu aurretik irakurri beharrik gabe, presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrik duen haren inguruan

Inork ez du oharrik egin.

Bertaratutakoen gehiengoarekin,

ERABAKI DA:

2017ko irailaren 12an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua. (2017/09/10)** Aditzera eman zen noraino gauzatu den aurrekontua 2017ko abuztuaren 31n, zein den gehieneko gastua 2018rako eta zer ildo nagusi dituen 2018ko aurrekontuak.
- **Nafarroako Eskola Kontseilua (Osoko Bilkura). (2017/09/27).** 2017-2018 ikasturteko lan plana eta ekitaldiko aurrekontua onetsi ziren. Eskola kontseiluaren 2016-2017 ikasturteko jardueren memoria aurkeztu zen.
- **Nafarroako Adingabearen Kontseilua (2017/09/20).** Familia, Haurrak eta Nerabeak Laguntzeko II. Plan Integralaren zirriborroaren proposamena aurkeztu zen.
- **Erroldatze Kontseilua.(2017/10/04).** Udalek ofizioz aurkeztutako bajen berri eman zen, bai eta udalek biztanleriaren datu ofizialen proposamenari aurkeztutako alegazioen laburpenaren berri ere.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2017/10/05).** Udalerrien izen elebidunen erabilera arautzen duen Foru Dekretuaren proiektuaren berri eman zen eta Hondakinei buruzko Foru Legea mahairatu zen (horren gaineko txostena 18an eginen da ziur aski).

ERABAKI DA: jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA. Garapenerako Lankidetzaren arloko jarduketak 2017-2018an.

Presidenteak azaldu du proposatu dela garapen lankidetzaren arloko zenbait jarduketa onestea, aldeztatik bildu den Lankidetzaren Batzordeak zehaztu duen moduan, zein Batzorde Betearazleko kideei eman baitzaie.

LEHENBIZIKOA. Lankidetzaren garapenerako proiektuen urteko laguntza deialdiaren ebazpena onestea, aldeztatik Lankidetzaren Batzordeak egin proposamenari jarraituz, zein akta honen eranskina baita.

Juan Jesús Echaidek hartu du hitza ebazpenaren proposamena azaltzeko. Adierazi du 29 proiektu aurkeztu direla eta, horietatik, hiru bazter utzi direla: bi, 24.000 euroko gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik, eta beste bat, berriz, entitate eskatzaileak ez adierazteagatik ordezkaritzarik duen Nafarroan.

Proposatu da baloraziorik handiena jaso duten seiri egitea esleipena eta, Funtzak oraino gain beste diru-sarrera batzuk lortuz gero aurre, puntuazio-hurrenkeran horien atzetik gelditu den proiektua aintzat hartzea.

BIGARRENA. Urteko beste deialdi bat egitea, 2018an garapen lankidetzarako proiektuak finantzatzeko, 2017an ezarritako deialdiaren modu bertsuan.

HIRUGARRENA. Nafarroako GGKEen Koordinatzailearekin jarraitzea lankidetzan, helburua izanik hari atxikitakoen jarduerak ahalik eta udalerrira gehienetara hedatzea, aholkularitza eta babes eskaintzea, eta teknikariei eta udalkideei dibulgazio eta prestakuntza ekintzak egitea. Horretarako, proposatu da

presidenteari baimena ematea hitzarmen bat sinatzeko, aurrekoak bezalako zenbatekoari eta edukiei dagokienez.

LAUGARRENA. 2016-2018ko proiektu hiru urtekoaren berri eman da, zein martxan jarri baita Eguesibarko, Burlatako eta Barañaingo udalekin eta Iruñerriko Mankomunitatearekin.

Azkenean, presidenteak proposatu du saharar herriarekiko oraingo hartu-emana eta konpromisoak areagotzea. Horretarako, berriazko hitzarmen bat onesten ahal da, finantzazio egonkorragoa aurreikusten duena Lankidetzaren Funtsetik, bermatzeko harrerako hurreko bidaiari egiten dutela udan.

Jarduketa horri dagokionez, presidenteak jakinarazi du bilkura bat egin zuela saharar ordezkariarekin eta horiek proposamen hauek egin zituztela lankidetzarako: errefuxiatuen kanpalekuetara joatea, ordezkariaren eta NUKFren arteko lotura sendotzea, senidetzeak sustatzea, finantzazioa handitzea eta diruz laguntzea familiei harrerako haurren bidaiarako.

Batzorde Betearazleko kide batzuk elkarlan zuzenagoaren alde agertu dira.

Izan ere, Iruñeko Udalaren ordezkariak, Perales andreak, adierazi du onetsia dutela senidetzerako hitzarmen bat. Leoz jaunak proposatu du udal borondate argia dutela lankidetzan aritzeko baina, oso maiz, egin litezkeen jarduketa batzuek ez dutela babes juridikorik (doan erabiltzea zerbitzu publikoak, etab.). Hori dela eta, proposatu du halakoak gauzatu ahal izateko bideak aztertu beharko liritekeela.

ERABAKI DA:

LEHENBIZIKOA. Lankidetzaren garapenerako proiektuaren urteko laguntza deialdiaren ebazpena onetsia, alde aurretik Lankidetzaren Batzordeak egin proposamenari jarraituz, zein akta honen eranskina baita.

BIGARRENA. Urteko beste deialdi bat egitea, 2018an garapen lankidetzarako proiektuak finantzatzeko, 2017an ezarritako deialdiaren modu bertsuan.

HIRUGARRENA. Nafarroako GGKEen Koordinatzailearekin jarraitzea lankidetzan, helburua izanik hari atxikitakoen jarduerak ahalik eta udalerrira gehienetara hedatzea, aholkularitza eta babes eskaintzea, eta teknikariari eta udalkideei dibulgazio eta prestakuntza ekintzak egitea. Horretarako, baimena ematen zaio presidenteari hitzarmen bat sinatzeko, aurrekoak bezalako zenbatekoari eta edukiei dagokienez.

LAUGARRENA. Jakinaren gainean gelditzea 2016-2018ko proiektu hiru urtekoari dagokionez, zein martxan jarri baita Eguesibarko, Burlatako eta Barañaingo udalekin eta Iruñerriko Mankomunitatearekin.

BOSGARRENA. Saharar herriarekiko elkarlana areagotzea berriazko hitzarmen bat sinatuz.

4. PUNTUA. Beste gai batzuk.

Proposatu da Batzorde Betearazlearen hurrengo bilkura beste egun batean egitea, azaroaren 21ean alegia (asteartea), bilkura horretan abenduko Batzar Nagusiaren gai-zerrenda eta dokumentazioa onetsi ahal izateko.

ERABAKI DA:

Lehenbizikoa. Gaia presazkotzat jotzea.

Bigarrena. Batzorde Betearazlearen hurrengo bilkura egunez aldatzea eta 2017ko azaroaren 21ean egitea.

5. PUNTUA. Presidentearen informazioa

Presidenteak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- **Hondakinei buruzko Foru Legearen Aurreproiektua.** Adierazi du Foru Batzordearen azken bilkuran aztertzekoa zela, baina, azkenean, kendu zela. Ziur aski 18an aurreikusten den Foru Batzordean eginen da horren gaineko txostena.

Ildo horretatik, gogorarazi da aurreproiektuaren zirriborroa igorria zegoela eta, orain, kontu garrantzitsuenei buruzko ohar batzuk igorriko direla, edozein ekarpen egin ahal izateko.

Orobat, proposatu da komenigarria dela mankomunitateen ordezkariekin biltzea. Batzorde Betearazleko kideek komenigarritzat jo dute bilkura hori egitea eta urriaren 16rako proposatu dute, 12:30ean.

- **Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko Legean organoak sinplifikatzeko aurreikusitako azterlanari dagokionez, zein Barneko Departamentua ari baita egiten.**

Azaldu da ezen, Batzordearen aurreko bilkuran adierazi zen bezala, lanean ari dela lege hori aldatzeko, aurreikusten diren organoetako batzuk sinplifikatzeko. Aldaketa zehatz batzuk dakartzan proposamen bat helarazi zaigu, eta organo hauek ukitzen ditu:

- Herritarren Segurtasunerako Toki Kontseiluak eta Segurtasunerako Toki Batzordea.
- Herritarren Segurtasunerako Kontseilua. Proposatu da horrek bere gain hartzea Segurtasun Publikorako Departamentu arteko Batzordea. Segurtasun Publikorako Kontseilua deituko litzateke.
- Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea eta Nafarroako Polizien Kontseilua. Batzordea kendu eta Kontseilua utzi gogo da. Baina desberdinak dira bata eta bestea. Organo horiei dagokienez, toki ordezkarien iritzia interesatzen zaie bereziki.

Idazkariak adierazi du Departamentuak jakin nahi duela zer pentsatzen duten toki entitateen ordezkariak azken aldaketa horren inguruan, Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea ukitzen baitu. Jakinarazi da toki entitateen ordezkariak handiagoa dela Batzorde horretan Kontseiluan baino, eta lehenengoa, gainera, berriazko foroa dela udaltzaingoentzat, eta Kontseiluak, berriz, udaltzaingoak zein Foruzaingoa ordezkatzeko dituela.

Kide batzuek adierazi dute ez dirudiela oso egokia hura bertan behera uzteak, ordezkarietarako gaitasuna galduko bailitzateke eta haien ustez, gainera, foro erabilgarria eta eraginkorra izan da udaltzaingoaren intereseko gaiak lantzeko.

Izan ere, Leoz jaunak adierazi du ezen, egia bada ere zenbait ordezkari bi foroetara joan eta bietan txostena egin dutela, Poliziei buruzko Foru Legearen Aurreproiektuaren tramitazioan gertatu den gisan, ez dagoela justifikaturik Koordinatzeko Batzordea bertan behera uztea.

Zentzu berean, Alvarez jaunak eta Garbayo andreak adierazi dute ordezkari galduko litzatekeela.

- **Bilkura SOM ENERGIAREKIN.**

Azaldu da beste bilkura bat egin dela entitate horren ordezkariarekin, non bere proposamena aurkeztu baitzigen eredu energetiko berri bat martxan jartzeko; horretarako, iruditzen zaio garrantzitsua dela eredu berri hori toki esparrutik sustatzea eta horretan jardutea.

Energia elektriko berdea kontsumitzeko kooperatiba bat da, irabazi asmorik gabea.

Honakoa eskaintzen diete toki administrazioei: kontratu berriak %100eko berdea den energia elektrikoa izateko, energia jasangarriaren udal proiektuak garatzea, hitzarmenak txirotasun energetikoaren ondorio latzak arintzeko, eta potentzia fintzeko azterlanak hornidura elektriko kontratuetan.

Pleguak ere jartzen dituzten udalen esku.

- **Bilkura Securitas Seguridad España SA enpresaren arduradunarekin.**

Adierazi da bilkura horretan aurkeztu zigtela zer zerbitzu eskaintzen dieten toki entitateei. Poliziaren jarduna osatzen dute (ebaluazio zerbitzuak eta babesa arrisku naturaletatik, instalazioen babesa). Aholkularitza zerbitzuak ere eskaintzen dituzte: nor bere burua babesteko planak, suteak itzaltzekoak, gatza garraiatzea.

Interesa duten entitateekin plan pilotuak egiteko aukera eskaini zuten.

- **Bilkura Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren ordezkariarekin irailaren 29an.**

Bilkura honen helburua zen azaroaren 25eko kanpaina prestatzea. Ildo horretatik, jakinarazi zitzaigun kartela toki entitateetara eraman gogo dela, kartela bakarra izan dadin. NUKFk logoarekin parte hartuko du. Prentsaurreko bat ere egingen da, urriaren 30erako aurreikusten dena.

Horretaz gain, jakinarazi ziguten lantegiak egin behar zituztela Berdintasunari buruzko Legearen zenbait puntu lantzeko.

Bukatzeko, aztertu zen nola bideratu daitekeen berdintasunaren aldeko udalerrien sarea sustatzeko udal batzuek egin duten eskaera. Horren inguruan, jakinarazi da proposatu dela NUKFk berdintasun teknikari bat kontratatzea, sarearen koordinazioa egiteko.

Presidenteak zalantzak agertu ditu kontratazio horren inguruan, ulertzen baitu alde aurretik sakontasunez hausnartu beharra dagoela NUKFren barnean horrek eman behar dituen zerbitzuen eta abarren inguruan. Bestalde, adierazi du badaudela beste aukera batzuk sarea martxan jartzeko eta, azkenean, aipatu du ezinezkoa dela fisikoki langile gehiago eranstea NUKFko egiturari.

Goldaracena jaunak galdetu du zein litzatekeen langile horren eginkizuna, koordinazio soila edo halako langile berariazkorik ez duten udalei ere zerbitzua ematea. Erantzuna da oraindik ez dagoela zehazturik, baina ziur aski bai.

Ezequiel jaunak adierazi du erabat ados dagoela NUKFren eginkizun estrategikoa alde aurretik aztertzearekin, ulertzen baitu ez litzatekeela komeniko egitura handigorik izatea.

Batzorde Betearazleko beste kide batzuek ere berdin pentsatzen dute. Hortaz, presidentek adierazi du lanean jarraituko dela berdintasunaren alde eta moduak bilatuko direla sare hori martxan jartzeko.

- **Bilkura Eusko Ikaskuntzarekin, haren lana eskaintzeko Nafarroako udalei**

Eusko Ikaskuntzak 100 urte beteko ditu 2018an. Orain, lan ildoak eta metodoak berraztertzen ari da. Nafarroako udalekin hainbat gaitan elkarlanean aritzeko eskaintza helarazi zigun. Entitate zientifiko eta kultural horretako zuzendari nagusia, Iñaki Ibarra, eta Nafarroako ordezkaria, Miren Epalza, bildu ziren gurekin.

Eusko Ikaskuntza 1918an sortu zuten Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako diputazioek. Diziplina arteko zientzia elkarte da, Euskal Herriaren eremuan eta Euskal Herrirako lan egiten duena. Egun, arlo hauetan egiten du lan bereziki: errealitate soziokulturala, eredu sozioekonomikoa, egitura soziopolitikoa eta euskara. 2018an XVIII. biltzarra egingen du, mendeurrena dela eta.

Elkarteak bereziki garrantzitsua deritzo udalekin lan egiteari, herritarrengandik hurbilago daudelako, eta jardueren eta proiektuen proposamenak eskaintzen dizkie Euskal Herriko gizartearen erronkei buruz, bai eta historia eta ondarea interpretatzeko ikerketa proiektuak eta tokiko historiari buruzko beste batzuk ere.

- **Errefuxiatuei harrera egiteko protokoloa.** Aditzera eman da zirriborro bat igorri zaigula, guk berriki dezagun eta horretarako sortutako taldean onets dadin. Protokolo horretan biltzen da nola jardun behar den errefuxiatuekin. Bertan, inplikaturako entitate guztiek dute zer egin, baita, nola ez, harrerako udalerrak ere.
- **Bilkura Ondarearen Defentsarako Plataformarekin.** Aditzera eman digute ezen, epai batzuk ikusita, inbentariatu diren ondasun guztiak berraztertu nahi dituztela. Abenduaren 16an batzar bat egingen dute eta NUKF gonbidatu dute.

ERABAKI DA: Jakinaren gainean daudela adieraztea.

6. PUNTUA. Galde-eskeak.

Galde-eskeen txanda hasita, Garbayo andreak mahai gainera ekarri du Nafarroako Polizia buruzko Foru Legearen Aurreproiektua tramitatzearen alde NUKFn egin zen prentsaurrekoa. Galdetu du ea erabakirik hartu ote zen horretaz, bera ez baitzegoen jakinaren gainean.

Presidenteak zehaztu du aldeko txostena egin zitzaiola polizien aurreproiektuari Toki Araubideko Foru Batzordean, Batzorde Betearazleak propio eginiko bilkura batean adostutakoarekin bat.

Gainera, azaldu du udaltzain batzuek argitaratutako idazki batean adierazten zela NUKFren iritzia ez zegokiela polizia duten toki entitate guztiei, presidentearen iritzi pertsonalari baizik. Horren ondorioz, zenbait alkatek beharrezkotzat jo zuten jakinaraztea NUKFk parte-hartze handia izan zuela aurreproiektu hartan eta, azkenean, aldeko txostena egin zitzaiola udaltzaingoaz bezainbatean, haien ustez Federazioaren proposamen asko biltzen baitziren bertan.

Recalde andreak adierazi du horren berri eman beharko zatekeela Batzorde Betearazlean.

Alvarez jaunak zehaztu du aldeko txostena egin zitzaiola aurreproiektuari, baina ez zela deus erabaki parlamentuko tramitazioari buruz.

Fabo jauna iritzi berekoa da.

Presidenteak azpimarratu du Foru Batzordearen txostenak Batzordeko kideen borondatea zuela babes, baita polizia kidegoak dituzten udalerrietako alkateek osatutako lan-taldeetan hartutako erabakia ere, eta prentsaurrekoaren helburua zela NUKFk aurreproiektuari buruz duen aldeko iritziaren berri ematea, toki entitateei dagozkien puntuetan.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko sei eta erdiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.